ELKARRIZKETA: SAIOA IBAÑEZ, DANTZARIA

# Arrasate PRESS

2000.eko apirilaren 19a
493. zenb.



# San Andresek Xake-mate

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: RAFAEL GOMEZ
KIROLA: SAN VIATOR ERRETA • KULTURA ELKARRIZKETA: ENRIKE PEREZ

11?

zergatik

Bikainak izaten jarraitu nahi dugulako

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

bikainak!

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR

# Arrasate 2010



Mikel Irizar

Izenburua zientzia-fikziozkoa iruditu bazaizu, irakurle, ondo zabiltza. Hain zuzen, Arrasateri etorkizunak zer ekarriko dion aztertu nahi dut gaurkoan. Ohar bat: Arrasateren lekuan Debagoiena irakurtzen baduzu, seguruenik parra, ze iragartzen diren egitasmo nagusiak eskualdeko esparruan izango dute eragina, herriaren mugen gainetik.

Gure hurbilean, kooperatibak dira giza eragilerik indartsuena, eta ez bakarrik atzera begira egin dutenagatik. Etorkizunerako iragartzen dutena ez da batere makala. Garaia egitasmoak, zehazki, sekulako eragina izango du eta, Arrasateko etxebizitzen azken prezioak entzunda, eragin hori hasi dela esango nuke. Honekin batera, errepide berriak datoz, Durango-Beasain eta Eibar-Gasteiz. Hurbileko informazioa landuz, Goiena kooperatibak eskualdea gorpuzten lagunduko du, eta Euskaltelen sareak eskualdea munduarekin lotzen. Eta jakina, dinamismoa baldin badago eta lotura onak, Arrasate askoren eskura jarriko da, interes ezberdinak egongo dira jokoan, eta erronkak ugaldu egingo dira.

**Arrasatek eta Debagoienak ez dute goragoko administrazioetan dagokien pisu politikorik**

Epe luzeko estrategia egokia gaurdanik finkatzea komeni da. Eta hemen hasten dira arazoak. Nori dagokio lan hori? Bada, batez ere Arrasateko Udalari, Debagoieneko Mankomunitateari, eta Gipuzkoako Aldundiari, bakoitzari bere neurrian. Gai dira, eta egin dezakete. Baina ez da ahaztu behar politikaren aurpegi ilunak administrazioetan sarri izaten duen eragina: epe laburreko interesak epe luzekoa menpean hartzen du eta alderdikeriak lankidetza oztopatzen. Neuk baino lehen beste batzuk esana dute Arrasatek eta Debagoienak duten pisu ekonomikoak ez duela goragoko administrazioetan dagokion pisu politikorik.

Bestalde, etorkizunaren eragile nagusi izango diren enpresak, oinarri sozialekoak izan arren, interes propioak dituzte eta hauen alde egingo dute lan. Honek ere ez du berez ziurtatzen epe luzeko ildoa interes orokorraren araberakoa izango denik. Orduan?

Nire ustez, gizarteak bere ardura zatia hartu behar du gai honetan, politikaren eta ekonomiaren eraginak orekatu eta osatzeko. Eta lan hau abiatzeko foro antzeko bat izan daiteke tresna egokia, hausnarketarako eta eztabaidarako balioko lukeen foroa, kanpoko nahiz bertako adituen ekarpenak jaso eta alderatuko lituzkeena. Gero, eztabaidaren ondorioak gizartera eta eragileengana bideratu beharko lirateke, bidea egin zezaten.

Gaurkoz ez noa aurrerago. Baina izena jartzekotan, zer moduz 2010 Foroa? ■

*"Dantza aukeratu dut gustatzen zaizkidan eta harritzen nauten gauzek sentiarazten didaten hori nolabait adierazteko".*

**Saioa Ibañez**

## 9.650.000

### pta.ko aurrekontua aurkeztu du AUKEAk 2000. urterako.

Diru hori Uarkape pilotalekuko zoruaren babesaren lanak egiteko, rokodromorako koltxonetak eta edukiontzi higienikoak jartzeko erabaliko da.

Igerilekuko aire egokituaren eroanbidearen zati bat eta kanpoko igerilekuetako bonba urperagarrientzat ordezko motorra erostea ere proposatu da.

AURKIBIDEA


- Ikuspegia ........... 3
  **"Arrasate 2010"**
- Irakurlea idazle ........ 4
- Inkesta ............. 5
- Euren ikuspuntutik ..... 6
  **Al-Andaluseko presidentea**
- Asteko hitzorduak ...... 7
- Astearen errepasoa .... 8
- Orain eta hemen ....... 9
- Asteko gaia ...... 10/11
  **San Andres Xake Taldea**
- Aurrez aurre ...... 12/13
  **Saioa Ibañez, dantzaria**
- Txutxumutxuak .... 17/18
- Zaldibarko areto futbola ............. 20
- Kirolak jokoan ....... 21
- Kulturaren txokoa .......... 21/22
- Azoka plaza ...... 24/25
- Foto zaharra ......... 26



ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Marijo Deogracias. **Kazetariak**: Ubane Madera,Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publizitatea**: Nerea Zallo,Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroiabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Arantzazu Loidi. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Izaskun Salazar. **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketa arduraduna**: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © **ARRASATE** PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.



**Azala**: Maddi Trutxuelo.

Arrasateko Udalaren laguntzaz | Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz | Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

### BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ............ 943 79 39 00
(emakumeak) ........ 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

**Larrialdiak**
SOS Deiak .................. 112
Gurutze Gorria ....... 943 76 55 76
DYA ................ 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
• Espezialitateak ....... 943 03 53 11
• Ikuskatzailea......... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
Aretxabaleta ......... 943 79 74 58
Aramaio ............. 945 44 53 40

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati ................ 943 78 04 11
Bergara ............ 943 77 91 06
Arrasate ............. 943 79 14 39
Aretxabaleta ......... 943 79 10 52
Eskoriatza ........... 943 71 44 07

**Ertzaintza**
Arrasate ............. 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea .......... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa ................. 900 40 05 23
..................... 943 79 78 44
..................... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak .............. 943 79 12 22
PESA. .............. 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza........ 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron ............ 943 77 01 05

**Irratia**
Arrasate Irratia ........ 943 79 58 77

### GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

**Asteazkena, 19**
• Azkoaga, Iturriotz

**Osteguna, 20**
• Korkuera, Musakola

**Ostirala, 21**
• Zabala, Zarugalde

**Larunbata, 22**
• Azkoaga, Ferrerias

**Igandea, 23**
• Azkoaga, Iturriotz

**Astelehena, 24**
• Korkuera, Musakola

**Asteartea, 25**
• Morales, San Andres

## APIRILAREN 6KO GREBA OROKORRA ARRASATEN

Mondragon Unibertsitatearen baitan dagoen Arrasateko Eskola Politeknikoko Kontseilu Soziala osatzen dugun delegatu eta subdelegatuok pasa den ostegunean, apirilak 6, Euskal Herrian irakaskuntza euskaldun baten alde burututako mobilizazioekin bat egiten dugula adierazi nahi dugu. Hala eta guztiz ere, ezin izan genuen gure aldarrikapena aurrera atera.

Eskolako zuzendaritzak interpretatu zuen greba deialdi honek ez zituela Eskolako barne araudiaren puntuak betetzen. Araudia hiru puntu hauetan oinarritzen da:

1.- Beste sektore sozial batzuen babesa izatea (alderdi politikoena eta sindikatuena).

2.- Behin eta berriz jasotzen den gertakaria ez izatea.

3.- Zuzenean irakaskuntzari eragitea.

Esan beharra dago hiru puntu hauen irakurketa malguegia izan dela beste aldi batzuetan, deialdiaren onarpen sozial garbia dela eta (adibidez, urtero-urtero intsumisioaren alde burututako mobilizazioak...). Aipaturiko onarpen sozial hau garbia den edo ez erabakitzea zuzendaritzaren esku dago eta hau ostegunean Kontseilu Sozialak eginiko eztabaidan agerian geratu zen. Bertan zuzendaritzak ordubeteko paro baten aldeko proposamena jarri zuen mahai gainean, greba orokorraren alternatiba bezala. "Orduan, araudia bakarra izanik, nola liteke paroa aurrera eraman ahal izatea eta greba ez?". Ikasle batek botatako galdera honen aurrean, zuzendaritzak paroaren aldeko proposamena atzera bota zuen. Ez zen garbi geratu egun horretan Euskal Herri osoan eginiko greba eta mobilizazio guztiekin benetan onarpen soziala garbia zela?

Honen aurrean Kontseilu Soziala osatzen dugun delegatu eta subdelegatuok zera adierazi nahi dugu:

1.- Bilera horretan zuzendaritzak mahai gainean jarri zuen proposamenaz ikasleokin jolastu nahi zela.

2.- Paroa edo greba egiterik badagoen eztabaidatzea, baina aukeratzeko eskubidea edukiz gero.

Onartzen ez duguna zera da: ikasleoi ateak ixtea, pentsatu eta erabakiak hartzeko daukagun gaitasuna kolokan jarriz.

*Mikel Iturrate Mendieta (Mondragon Eskola Politeknikoko Ikasleen Kontseilu Sozialeko delegatu eta subdelegatuen izenean)*

### Oharra:

*Aste Santua dela eta,* Arrasate Press*ek ere oporrak hartuko ditu.*

*Hurrengo zenbakia maiatzaren 5ean izango duzue zuèn etxeetan.*

### Zuzenketa:

Aurreko asteko Auzoz-Auzo atalean, On Jose Luis Iñarra apirilaren 15ean hil zela agertu zen; ordea, egun horretan jaio egin zen.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

# Zer egiten duzu maskotarekin oporretan?

*Aste Santuko oporrak datozela eta, asko izango dira zaintza-etxeetan animaliak utziko dituztenak*



**Begoña Esnal**
**(63 urte)**
**Erretiratua**

Ez daukat animalirik, baina edukiz gero, neurekin eramango nuke.



**Amador Rivas**
**(49 urte)**
**Langilea**

Duda barik, izanez gero eraman egingo nuke.



**Jose Antonio Merchan**
**(24 urte)**
**Langilea**

Ahal izango banu eraman egingo nuke eta bestela, konfiantzazko lagunen bati utziko nioke.




**Iraitz Urrutia**
**(19 urte)**
**Ikaslea**

Eraman egingo nuke edo animaliak zaintzen dituzten etxeetako batera eramango nuke.



**Juan Luis Santos**
**(28 urte)**
**Langilea**

Eraman egingo nuke eta bestela, amarenean utziko nuke.



**Valentin Uribarren**
**(43 urte)**
**Langilea**

Lehengusuen edo aitaren etxera eramango nuke, baina bidaia motza balitz, agian eraman egingo nuke.



**Mari Karmen Martinez**
**(39 urte)**
**Langilea**

Txakurra izan nuen hamaika urtez eta beti eraman izan dut nirekin.



**Kristina Etxebarria**
**(21 urte)**
**Ikaslea**

Gurekin eramaten dugu beti.

Focus TDdi
Injekzio zuzena
1.975.000 pta.
Prever plana
eta deskontuak barne
MUGARRI
943 79 07 44




ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

## USTEAK USTE

### *Berriz ere txikizioak*

**Joan den asteburuan baten batzuk zeregina izan zuten Mondragoen. San Viator Txiki ikastolako gimnasioa erre zuten. Arduradunek diotenez, hasiera batean 20 milioiko diru-galerak eragin dituzte.**

**TVEko albistegian esan zutenez, kale borrokaren eraginez gertatu zen ikastolaren erreketa. Ikastolako zuzendaritzaren ustez, ordea, gertaera hau ganberro batzuen gaiztakeria izan da. Eta kontuan izaten baldin badugu San Viatorreko suaz gain, Santa Barbarako parkean norbait zuhaitzen adarrak mozten ibili zela eta zuhaixkak ere errotik atera zituztela, eta Biterin barandila bat kendu zutela eta Takoloko biribilaren ondoko koadro elektrikoan ere ibili zirela, ganberro asko dagoela pentsa genezake.**

**Norbaitek asteburua ondo pasatzeko txikiziotan ibiltzea sekulako aukera dela pentsatu omen du.**

**Pentsatu du, ordea, herrian eragindako kalteak udalak ordaintzen dituela eta udalari herritarrek ordaintzen dietela zergen bidez?**

**Pentsatu bada, eta aldarrikapenak egiteko beste bide batzuk aukeratu.**

**Marijo Deogracias**



# Badira zenbait "mirari"

*** Rafael Gomez**

Al-Andalus elkarteak 10 urte betetzen ditu aurten, hori dela eta, epe horri begiratu bat egitea ezinbestekoa da.

80. hamarkadaren bukaeran, jatorri kordobarra genuen lagun talde batek elkarte gastronomiko bat sortu nahi izan genuen, baina elkarte andaluziar bat egin genuen. Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait esparrutan bezala, inguru honetan ez genuen horrelako elkarterik. Abaroan elkartzen ginen Logroñora, Getafera, Teruelera eta hainbat lekutara irteerak egin eta beste etxe andaluziar batzuk ikusteko. Etxe horietatik ahal genuen guztia kopiatzen genuen, guztia iruditzen zitzaigun zoragarria. Gogoratzen dut hasi ginenean bazkideetako inork ez zekiela sevillana dantzetako lehen pausoak egiten. Erguingo egoitzaren inaugurazioa ere kopiatu genuen 1990eko ekainean, Udalara egindako lehen erromeria ere bai, lehen Andaluzia Eguna kiroldegian, Euskadiko Etxe Andaluziarren Federakuntzan sartu ginenekoa...

Hamar urte gutxi iruditu dakioke norbaiti, baina Al-Andalusen epe honetan gertatu dena ikusita, hamar urte denbora tarte oso luzea da. Dantza taldean hasi ziren haurren argazkiak ikustea besterik ez dago; gaur egun kargu garrantzitsuak dituzte elkartean.

Umila ez banintz esango nuke Al-Andalusek Arrasateko herriaren errespetua eta mirespena irabazi duela. Duela urte asko desagertu ziren herri honen izaera kulturalean barneratzen asmatuko ote genuen zioten zalantzak. Orain, sortzen ikusi gintuen herriko kulturaren alde serioski lan egin dugula irizten diote gurekin harremana duten erakundeek ere, batez ere Andaluziako Batzarreko Kultura Kontseilaritzak. Gaur egun eredu bezala jartzen gaituzte hasi berri diren elkarte andaluziarren aurrean. Euskadiko Elkarte Andaluziarren Federakuntzako garrantzi handiko partaideak garela ere esango nuke, eta zentzu guztietan Federakuntza horretako elkarte handiena garela orain.

> **"Umila ez banintz esango nuke Al-Andalusek Arrasateko herriaren errespetua irabazi duela"**

Urtero antolatzen ditugun ekintzak eta gure talde artistikoekin jarraitzea (antzerkia, abesbatza errozieroa, dantza, txirigota, eskulanak, gimnasia, joskintza...) nahikoa izango lirateke Al-Andalus elkarteaz harro egoteko. Baina ez dira hor bukatzen gure kultura elkarteaz harro egoteko arrazoiak. Gehien atsegin dudana zera da: aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak leku berean nola bizi diren ikustea; alargun gelditu diren emakume bazkideak, Andaluziako ohituren izaerari segiz etxean gelditu beharrean, orain irten eta bizitzen jarraitzeko arrazoi bat dute. Al-Andalusen beti dute zer egin eta zeinekin hitz egin. Beti izan dute eta izango dute urteetan pilatu duten jakituria nori igorri.

Ohitura dugun bezala, egin dezagun topa "fino" eder batekin urteurren hau ospatzeko, eta segi dezagun lanean beste urte pilo bat betetzeko.

* Al-Andalus Elkarteko presidentea

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

# 29 larunbata

**■ LAU TALDE GAZTETXEAN**

*Skacha, Disturbio 77, Enboskada* eta *Arkada* taldeen kontzertua izango da Gaztetxean.

**■ JAM ARETOA**

*Kamelot* taldearen kontzertua izango da Bergarako Jamen. 21:30.

# 30 igandea

**■ ANTZERKIA GO-JAMEN**

Free Pelota antzerki taldeak *El Marido de la Pakita* lana taularatuko du. Go-Jamen, 21:30.

**■ DUNBAKA**

Lehen *Nick Twilley* perkusio taldea zenak, orain *Dunbaka* izenekoak, kontzertua emango du. Aretxabaletako Gaztetxean, 20:30.

**■ ZINEA**

**Apirilak 20:** *El Hombre de la luna*, 17:00, 19:30 eta 22:00. Alai zinema.

**Apirilak 21:** *El Hombre de la luna*, 17:00, 19:30 eta 22:00. Alai zinema.

**Apirilak 22:** *Mandibulas*, 17:00 eta *Huracan Carter*, 19:30 eta 22:00. Alai zinema.

**Apirilak 23:** *Mandibulas*, 17:00 eta *Huracan Carter*, 19:30 eta 22:00. Alai zinema.

**Apirilak 24:** *Mandibulas*, 17:00 eta *El Dilema*, 19:30 eta 22:00. Alai zinema.

**Apirilak 25:** *El Dilema*, 19:00 eta 21:30. Alai zinema.

## San Andreseko jaiak

**■ OSTIRALA, 28**

18:00 Etxafleroak, buruhaundi eta kilikiak, txokolatada eta Ourenseko Pulpeiro de Carvallino postuaren irekiera.

23:00 Dantzaldia.

**■ LARUNBATA, 29**

10:00 Etxafleroak.

11:00 Arku tiraketa, puzgarriak eta tailerrak.

12:30 Txaranga.

18:00 Buruhandi eta kilikiak.

**■ DOMEKA, 30**

10:00 Diana.

12:00 Txaranga eta herri kirolak.

18:00 Buruhaundi eta kilikiak.

23:00 Dantzaldia.

**■ ASTELEHENA, 1**

10:00 Diana.

11:30 Meza.

12:00 Txaranga.

12:30 Luntxa Corazon de Encinan.

**■ ASTE SANTUA**

Arrasateko Parrokiak Aste Santua ospatuko du:

**Ostegun Santuan**, 18:00etatik aurrera elizkizunak izango dira. 22:00etan, Ordu Santua ospatuko da San Juanen eta Santamañan.

**Ostiral Santuan**, Gurutz Bidea egingo da Portaloitik Santa Barbararaino, 8:00etan; Uribarri eta Santamañan, 11:00etan, eta Santa Teresan, 12:00etan.

**Domekan**, hilaren 23an, Bazko Gaubeila, 20:00etatik aurrera.

**■ ABERRI EGUNA**

Datorren domekan, apirilaren 23an, Aberri Eguna ospatzen da. Hori dela eta, eguerdiko 12:00eta, udaletxe aurrean, EAk, EAJk eta EHk ikurriña igoko dute trikitalarien eta txalaparen soinuekin. Bestalde, EAk Gernikara joateko autobusa antolatu du. Txartelak alkartetxean salgai, 2.500 pta.n.

EHk, berriz, Iruñeara joateko deia egin du eta EAJk, bazkaria egingo du batzokian.

GIZARTE LAGUNTZAILEA

Gaixotasun bajaz dagoen titularra ordezkatzeko, aldi baterako lan kontratua eskaintzen da. Ordezkapena lau hilabete ingurukoa aurreikusten da.

Aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:
- Euskara: 3. HEren, pareko jakintza.
- Gizarte Laguntzailearen titulua edo Gizarte Laneko diplomaduraren jabe izatea.

Interesdunak Arrasateko udaletxera etorri behar dira apirilaren 26an, goizeko 10:00etan, euskara proba, praktikoa eta elkarrizketa egiteko. Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri arauak Arrasateko Udaleko Pertsonal Sailean jaso daitezke.

ARRASATEKO UDALA — Pertsonal Saila

Gizonak
Emakumeak

LUKO Jantziak

Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12

## astea bi hitzetan

### Aramaioko errekak konponbidean

Aramaioko Arexola eta Gantzaga erreketan uraren indarrak bazterrak jan eta lubiziak eragiten ditu. Are gehiago, dagoeneko ermita ondoko hesi zati bat erori egin da eta pareko lurrak ere mugituta daude. Goitik pasatzen den errepidea ere nahiko egoera eskasean dago horregatik. Hori dela eta, konponketak egitea erabaki da.

Aramaioko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hori egiteko hitzarmena sinatu zuten ostegunean.

Konponketa lanek hiru hilabete iraungo dute eta ia 20 milioi pezeta kostatuko dira. Kopuru horren %25 Aramaioko Udalak ordainduko du. Beste guztia, Eusko Jaurlaritzak.

### Iturbide Egoitzako auzia

Espainiako eta Euskadiko Auzitegi gorenek arrazoia eman die 98an Iturbide Egoitzatik kanpo geratu ziren sei langileei. Udaletxean izandako zentsura mozioa zela eta, Arrasateko Udala gobernatzen zuen taldeak egoitzako klinika zerbitzua azpikontratatzea erabaki zuen. Lan horretan zebiltzan sei langile kalean geratu ziren. Harrezkero, Untza izeneko enpresak betetzen du zerbitzu hori.

Orain, kaleratzea bidegabekoa dela uste dute aipatutako bi epaitegiek, beraz, Udalak ez du beste biderik kalte-ordainak ordaintzea baino.

### ESK eta STEE-EILAS

Lan arloko behin-behinekotasunaren aurkako kanpaina bati ekin zioten ostegunean ESK eta STEE-EILAS sindikatuek. Batzarra egin zuten aurrenik Monterronen, eta ondoren protesta ekitaldia herrian zehar. Juan Ramon Garairen, ESKko bozeramailearen ustez, behin-behinekotasun handia da MCCn; Hiper Eroski MCCko partaide delako erabaki zuten protesta hara eramatea.




### Euskara ofiziala!

Euskararekiko solidarioak kalera atera ziren ostiralean. Txuriz jantzita, euskarak Justizia Administrazioan duen egoera latza salatu zuten. Epaitegira joan ziren aurrenik solidarioak protesta egitera; ondoren, Udaletxera ere sartu ziren, AUKEAren sari banaketa aprobetxatuz. Arbolapetan geratu ziren protesta bukatzen.

> Zabarteren lekukotasunak kolokan jartzen zuen Elgorriaga gobernadorearen defentsa. Testiguaren balioa zalantzan jartzeko bere hilketen zerrenda gogorarazten hasi zitzaizkion Arrasateakoari Argoteta. Zabarteren erantzuna, zirt-zartekoa: «Neure erakundearen ekintza guztiak hartzen ditut neure gain; beste batzuek beren ekintzekin ez bezala».
>
> Galindoren burutik zer pasatuko zen pentsatu nuen orduan.Libre atera daiteke atako honetatik, eta zigortzen badute ere ez da denbora luzea igaroko indultuarekin-edo kalera ateratzeko; baina batera zein bestera, isilik egon beharko du, ezingo du kopeta goratuta harro aldarrikatu bere gain hartzen dituela euskal terroristen kontrako guduan egindako guztiak; eta inbidia sentituko zuen une batez, Espainiako kartzela gogorrenetan izorratuta daukaten militantearen harrotasuna aurrean.
>
> **X. MENDIGUREN ELIZEGI**
> *E. Egunkaria* (2000.4.15)



# Hies Berri elkarteak ateak zabalik ditu



**Hies Ekimena taldeko kolaboratzaileak izan dira Hies Berri taldekoak.**

Horixe da asteartean prentsaurrean adierazitakoa. Modu honetan, orain arte HIESAk eragindako ondorioak saihesteko eta gutxitzeko lanean ibili direnei, horretan segitzeko deialdia egin die sortu berri den Hies Berri taldeak.

Desagertu den Hies Ekimena elkarteak hasitako lana jarraitzea nahi dute talde berriko kideek. Batez ere, aholkularitza eta hezkuntza lanak egingo dituzte. Espezialisten esanetan, HIESAren aurkako neurririk egokiena informazio-prebentzioa izanik, horixe da talde berri honek egingo duena: ikastetxeetan, gaztetxeetan eta, oro har, gizartean, beharrezkoa den informazioa eman.

Honez gain, gaixoak eta beren senideak laguntzen segituko dutela ere adierazi zuten prentsaurrean. Era berean, erakundeei HIESAri aurre egiteko behar dena eskatzen segituko dutela ere jakinarazi zuten Hies Berri elkarteko kideek.

## 8.000 lagun inguru Arantzazura



Eguzkia eta haize freskoa lagun, 8.000 bat gipuzkoarrek egin zuten larunbatean Oñati eta Arantzazu bitarteko bidea oinez.

Aurretik "Jesukristorekin hobeto" zioen pankarta zegoen. Honen atzetik, Jesus Maria Uriarte gotzaina, Jose Antonio Pagola bikarioa eta Gipuzkoako 224 parrokietatik etorritako erromesak joan ziren. Aste Santuari bidea ireki zitzaion ekitaldi honekin. Arantzazuko Santutegian amaitu zen ospakizun erlijiosoa, gotzainaren berba batzuekin.

## Sua San Viator Txiki Ikastolan

Igande goizean ezezagun batzuk sua eman zioten San Viator Txiki Ikastolako gimnasioari. Bizilagunek, ikastolatik ateratzen zen keaz ohartuta, Ertzaintza, suhiltzaileak eta ikastolako arduradunak ohartarazi zituzten.

Suteak eragindako kalteak handiak izan dira; 20 milioi pezeta inguru. Gimnasioan zegoen material ia guztia kiskaltzeaz gain, goiko ikasgelak guztiz belztuta eta zikinduta geratu dira, beraz, dena garbitu eta margotu beharra dago.

Ikastolako zuzendaritzaren ustez, ganberro talde batek eman dio sua gimnasioari.

Aste bukaeran, izan zen bestelako txikiziorik herrian. Santa Barbarako parkean, arbola bati adar batzuk ebaki zizkioten eta zuhaixka batzuk errotik atera zituzten. Takoloko biribilean, berriz, koadro elektriko bat ibilita topatu zuten eta gainera, baserritarrentzako zenbait postontzik ere erasoak jasan zituzten. Biterin, bestalde, BBVAren atzealdeko eserlekuetara igotzeko barandila bat kendu dute.

## Monterron-Erguin aurrera

Monterron eta Erguin auzoak lotuko dituen oinezkoen pasealbidearen oinarrizko proiektua aurkeztu du LKS enpresak aste honetan.

Monterronen hasi eta Zarugalde atzealdetik zehar Kanpanzarrera doan errepideraino helduko da. Han, zubi batek zeharkatuko du errepidea Villa Tranquila eta Madina Zurak enpresaren artean, segidan, Erguin auzoraino.

LKSk aurkeztutako bi alternatiben artean, burdinezko zubia eraikitzea proposatzen duena aukeratu du Gobernu Batzordeak; antzina izen handia zuten Mondragoeko mehatzeen sinbolo moduan.

Hau dena, oinarrizko proiektua besterik ez da. Onartutako irizpideen arabera, behin-betiko proiektua idatziko du LKSk. Sei hilabeteko epea du horretarako. Pasealbidea eraikitzeko lanak adjudikatuko dira eta gero hasiko dira lanok egiten.

Musakola eta San Andres auzoak lotuko dituen Gernika Oinezkoen Zumardia amaituta geratuko da.

## Zentral eolikoaren aurka

Elgeako Zentral Eolikoaren aurkako taldeak ibilaldia egin zuen igande goizean Eskoriatzatik Aretxabaletara. Mendi tontorrean ezarritako hamalau haize-errotek eraginako kaltea salatu zuten. "Lau haizetara oihukatzen dugu, Zentral eolikorik ezetz" leloa zeraman pankartaren atzean abiatu ziren zentral eolikoaren aurkako taldekoak Eskoriatzatik Aretxabaletara.

## Presoen alde kalean

Larunbatean gazte piloa elkartu zen Seber Altube plazan euskal presoen aldeko erreibindikazioa kaleratzeko. Bakoitza bere txirrinduarekin "Euskal Presoak Euskal Herrira" leloa zeramaten oihalekin jarrita. Herriko plazan elkartutakoek adierazi zigutenez, hemendik aurrera hiru lekutan egingo dituzte bilkurak astelehenero AABBkoek: herriko plazan, Zigorrolan eta San Andresen.

# San Andres Xake taldea

**1999ko talde onenaren AUKEA saria irabazi berri du. Iazko denboraldian San Andres Xake taldeko lehen taldeak, Euskal Ligan sailkatzea lortu ez zuen arren, bere bigarren taldea Gipuzkoako ligara igo zen eta datorren denboraldian lehen eta bigarren taldeak arituko dira Gipuzkoako Ligan. Horrez gain, hirugarren taldeak ere igotzea lortu du eta hurrengo denboraldian Gipuzkoako bigarren mailan jokatuko du. Laugarren taldeak, berriz, Gipuzkoako bigarren mailan jardungo du.**



Manuel Sebastianek jaso zuen AUKEA saria, Ismael Gonzalezen eskutik.

Ikusten duzuenez, Arrasaten xakeak badu indarrik. Eta ez txikia gainera. San Andres Xake elkartean 50 bat xakezale daude gaur egun. Horietatik 35 bat txapelketan ari da, bai taldeka zein banakako txapelketan.

Harrigarriena zera da, orain dela 30 urte 12 eta 13 uteko bi mutil koskor hasi zirela xakean jokatzen eta eurekin, adinari erreparatu barik, oraindik bizirik eta indarberriturik dagoen San Andres Xake Taldea sortu zutela.

"Orain dela 30 urte hasi ginen: Julio Martin eta ni, Eugenio de Andres, ume batzuk ginela. 12-13 bat urte genituen eta xakea gustuko genuen. Nik neuk, esaterako, etxekoekin oporraldi batean xakean jokatzen zuten artzain batzuei begira ikasi nuen jokatzen. Gero, nire lagunari erakutsi nion eta honek bere anaiari. Txapelketa bat antolatu genuen; zaleak bazeudela ikusi eta San Andresko parrokia-aretoan leku bat aurkitu genuen. Garai hartan legeak ez zuen lagatzen talderik eratzen eta parrokia-aretoak horretarako bidea eman zigun. Bergaran ordurako bazegoen xake taldea eta eurekin izan ginen nola funtzionatzen zuten jakiteko. Ignacio Muela zen garai hartan Bergarako Xake Taldeko presidentea. Gaur egun Euskal Herriko xake federazioko presidentea da. Berarekin izan ginen eta taula pare bat oparitu zizkigun: "Arrasaten hasi ginen: Manuel Nafarrate eta nirekin batera Manolo Sebastian irakaslea zegoen. Berak ikastetxean xake eskolak ematen zituen. Honela eratu zen San Andres Xake Elkartea. Lehenengo presidentea Azkoaga izan zen. Pablo Ortubik hartu zion txanda eta urte askotan bera izan zen lehendakaria".

Hasieran, etxekoen arteko txapelketak izan ziren, baina berehala Gipuzkoako ligan hasi zen Arrasateko taldea. Manolo irakasleak eskolatik harrobia zaintzen zuen eta gero taldera bidaltzen zituen guk txapelketetarako prestatzeko. Baina, gaur egun xakeak maila dezentea dauka. Ez da lehen bezala: pixka bat entrenatu eta jokalari bikaina zinen. Gaur egun jakinduria handia dago eta neke asko eragiten du irabazteak. Hasi ginenean esaterako, Espainiako gazte eta infantil mailako eskola arteko txapelketa irabazi genuen. Guadalajaran jokatu



Lehen taldea Isidro Ruiz, Martin Arriaran, JosuTornay, Jon Perez eta Luis Ortegak osatzen dute. Argazkian Txema Hernando falta da.



Bigarren taldea Roberto Andres, Eugenio de Andres, Juan Carlos Mayo Xabier Axpek osatzen dute. Argazkian Roberto Guiller falta da.

3. tal osatz

# en estrategiak

zen eta ni entrenatzaile joan nintzen, Juan Carlos Mayo, Ramon Sebastian eta Clemente Canelo Espainiako txapeldun izan ziren" gogoratzen du Eugenio de Andresek.

## NESKARIK EZ

Xakea, neska eta mutilen arteko mailak bereizten ez dituen kirol bakarrenetarikoa da. Hala ere, San Andres Xake Taldean gaur egun ez du emakumerik jokatzen. "Hasierako urteetan baziren batzuk eta oso onak ziren gainera. Loli Errasti oso azkarra zen eta gaur egun Oñatin bizi den arren, tarteka etortzen da gurekin jokatzera. Xakean, indarra taulan dago eta ez du axola neska edo mutila izateak".

### AUKEA 1999

Felix Izeta Maixu Handiak 24 xakelariren aurka jokatu zuen Udaletxean ostiralean. Zestoarrak 20 partida irabazi zituen, bi berdindu, Andoni Miguel eta Juan Carlos Mayoren aurka eta bi galdu, Leopoldo Lainz eta Luis Angel Ortegaren aurka.

## KIROL OLDARKORRA

Xake jokoaren helburua aurkariaren erregea harrapatzea edo "jatea" da, hau da, xake mate egitea. Arabiarrek pertsiarrengandik jaso zuten xakea eta bultzada handia eman zioten. Espainiara, Portugalera eta Siziliara zabaldu zuten. Gerrarako jokoa dela ere entzun izan dugu: estrategia asko lantzen da eta helburua aurkariaren piezak jatea eta berau indarrik barik lagatzea denez, askok kirol oldarkorra dela diote. "Fisher xakelari famatuari buruz hiltzaile sena zuela esan izan da" dio Josu Tornayk. "Xake partida tentsio handikoa da eta estresaren aurka ibili behar zara denbora guztian".

## OROIMENA LANDUZ, HAZTEN

Baina baditu beste ezaugarri batzuk ere. "Erakarri egiten zaitu xakeak. Ordu asko eskatzen ditu, baina osasungarria da: buruari eragiten diozu eta, azken batean, aktibo egoten laguntzen dizun gimnasia da zarena zarela eta daukazun adina izanda ere". Hori diote Eugenio de Andresek eta Manuel Nafarratek.

"Horregatik, xakea oso lagungarria da umeentzat. Esate baterako, zure erabakien arduradun zara. Ezin diozu epaileari edo beste inori errua bota: zeuk erabaki duzu pieza hori mugitzea eta horren kargu egin behar zara. Horrek ardurak hartzen laguntzen dio umeari, arduradun izaten irakasten dio. Antolatzen ere irakasten dizu; hau da, jokoan aurrera egiteko mugimenduak pentsatu behar dituzu, jokaldia planifikatu behar duzu. Horrek eguneroko bizitzan lagundu egiten du: pertsona izaten laguntzen dizu" dio Eugeniok.

Eta Manuel Nafarratek ere gauza bera uste du: "Oroimen ariketa oso ona da xakea, baita helduentzat ere. Oroimena gutxitzen da adinarekin eta xakea ariketa oso praktikoa da".

## ETORKIZUNA

San Andres Xake Taldeak zuzendaritza batzordea berriztu du eta Josu Tornay aukeratu zuten lehendakari. Berak esan digunez "gure lehentasuna lokal egokiagoa lortzea da. Orain duguna, Errebuelta kaleko laugarren zenbakiko lokala, ez da batere egokia: oso hotza da, txikia eta hezetasun handia dauka. Gainera, lokal egoki batek ekintza gehiago egiteko aukera ekarriko digu. Profesionalki, datorren denboraldian mailaz igotzea da helburua: aurten bigarren taldea Gipuzkoako ligara igo da, eta, hori dela eta, hurrengo denboraldian bi talde arituko gara Gipuzkoako ligan, beste bat Gipuzkoako lehen mailan eta gazteenak Gipuzkoako bigarren mailan".

San Andres Xake Taldeak harrobia ere zaintzen du eta bere hasierako urteetan irakasle baten laguntza izan zuten horretarako. Gaur egun Arrasateko Kirol Proiektuaren laguntza dute. Eurekin batera xake eskolak ematen diete herriko neska-mutikoei eskolaz kanpoko kirol ekintzen artean. "Arlo hau bultzatzea nahiko genuke eta horretaz Roberto de Andres arduratzen da". ■

**Marijo Deogracias**



3. taldea Gerardo Bellido, Mikel Hernando, Karmelo Mugarza, Oscar Herraezek osatzen dute. Argazkian Juan Luis Arrazola eta Ekitza Mendizabal falta dira.



Laugarren taldea Patxi Canelo, Raul Vigara, Ander Giñart, Jon Rodriguezek osatzen dute. Argazkian Jorge Bellanco falta da.

# SAIOA IBAÑEZ (DANTZARIA)

# "Gorputz bakoitza mun

**Saioa Ibañez 24 urteko arrasatearra da. 17 zituela, bere bizitza aldatu nahi eta, gaur egungo dantzak ikasten hasi zen. Primerako dantzaria ezezik, koreografoa ere bada. Oraindik Holandan dihardu ikasten, baina emanaldi saio bat ematera etorri da jaioterrira.**

**—Zergatik erabaki zenuen Bartzelonara joatea, eta ez beste inora?**

—Gasteizen edo Donostian ere bazegoen ikasterik, baina benetan ondo ikasi nahi nuen. Gainera, kontuak aterata, gastuak antzekoak ziren. Erabaki eta joan egin nintzen.

**—Kontaiguzu hango esperientzia...**

—Eskolara sartzeko probak egin nituen, baina azkenean ezin izan nuen sartu. Orduan, nire kabuz ikasten hasi nintzen, eta horrela igaro nituen hiru urteak. Bartzelonan dantzarekiko zaletasun handia dago, eta non bilatu jakinez gero, erraz aurki dezakezu norekin ikasi. Horrek alde on bat du: neuk erabaki nezakeen norengana joan. Baina une gogorrak ere pasatu nituen. Askotan ez nuen garbi ikusten nora iritsi.

**—Noiz arte egon zinen Bartzelonan?**

—Hiru urte. Gustuegi nengoen, eta horrela ez zegoen gauza berririk ikasterik. Orduan, Bruselan ematen zen Performance Education Programme izeneko ikastaro baterako izena eman nuen, eta hartu egin ninduten. Zortzi hilabete igaro nituen Bruselan, eta oso esperientzia ona izan zen. Baina gehiago ikasi nahi nuen. Holandan School for a New Dance Development izeneko eskola dago, eta probetara aurkeztea erabaki nuen, koreografia ikastaroa egiteko. Baina epez kanpo nengoela esan zidaten.

**—Azkenean, baina, zorte ona izan omen zenuen...**

—Bai, hala da. Eskolako zuzendariarekin topo egin nuen eta kontua azaldu nion, eta berak itxaroteko. Egun hartako lehiakideak pasa ondoren tokirik egonez gero, probetarako hartuko nindutela esan zidan. 150 lagun ginen, zortzi posturako lehian. Hiru eguneko proba egin nuen, nahiko gogorra, eta hautatu egin ninduten. Zazpi hilabete egin ditut, eta gutxienez beste hiru urtez edo jarraitu beharko dut.

**—Nolako jendea da han ikasten dabilena?**

—Nahiko maila handikoa. Oso eskola ospetsua da mundu osoan, eta alderdi guztietako ikasleak gabiltza. Polita da benetan, kultura piloa bil-



> **"Bizitzak eragiten dizkidan sentimenduak bideratzeko modua da dantza niretzat"**

# ndu bat da"

tzen baita. Ingelesa bigarren edo hirugarren hizkuntza da guztiontzat.

**—Zer dela eta zaitugu orain Euskal Herrian?**

—Oporretara eta lanera etorri naiz. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Euskal Koreografo Gazteak programak deituta nago hemen. Dantzari laguntzeko antolatzen du egitasmo hori. Koreografoek proiektu bana aurkezten dute, eta onartuz gero, hori taularatu behar. Donostian, Gasteizen eta Barakaldon izan gara. Ez nabil koreografo lanetan, dantzari moduan baizik. Zapatuan, berriro Holandara, domekan pieza bat zuzentzen hasi behar naiz eta. Lehen aldia izango da zuzendari moduan dihardudala.

**—Koreografiak asmatzeko orduan, zertan inspiratzen zara?**

—Bizitza dut inspirazio iturri. Beste koreografo batzuen eragina ere hor dago, baina nik miresten ditudan gehienak ezezagunak dira.

**—Dohain berezirik behar da dantzari izateko?**

—Ez. Inoiz ez da beranduegi dantzan ikasteko. Prestakuntza fisiko berezirik ere ez da behar izaten. Dantza klasikoa egin nahi baduzu, bai; baina gaur egun aukera mordoa dago dantzaren esparruan: mugimendua, argiak, musika, irudimena... ez zaude zu bakarrik. Behar den gauza bakarra da musika sentitzea eta dantzarekin bat etortzea. Hortik aurrera, bakoitzak bere ahalmenaren arabera eman dezake. Gorputz bakoitza mundu bat da eta, guztiok berdin ikasten dugun arren, bakoitzak bere mugitzeko era aurkitu behar du. Holandako eskolan, adibidez, esplorazio moduan lantzen da dantza.

**—Nondik datorkizu zuri dantzarako zaletasuna?**

—Bizitzak eragiten dizkidan sentimenduak bideratzeko modua da dantza niretzat. Dantza aukeratu dut gustatzen zaizkidan eta harritzen nauten gauzek sentiarazten didaten hori nolabait adierazteko.

**—Koreografo izateak ere laguntzen dizu horretan?**

—Bai. Erdi ahaztuta ditudan gauzak azaleratzea gustatzen zait, ea zer irteten den hortik. Horregatik, nahiz eta hari bat eduki, dantzariei askatasuna ematea gustatzen zait, eman nahi didatena eman diezadaten. Dantzari guztiak ezagutzen ditut, eta bakoitzaren dohainak aprobetxatzen saiatzen naiz.

**—Etorkizunean, zer?**

—Ikasten eta ondo pasatzen jarraitu nahi dut. Hala ere, gero eta gogo handiagoa dut Euskal Herrira itzultzeko. Ez bakarrik herriminak eraginda; dantza ikasten hasi nintzenean argi nuen ikasitakoa hona ekarri nahi nuela. Irakastea oso gustuko dut; iaz eman nituen eskolak Arrasateko kiroldegian, eta aurten ere emango ditut. ■




# San And

ostirala **28** Apirilak

18:00 Etxaflero jaurtiketa, buruhandi eta kilikiak eta TXOKOLATADA.

18:00 Ourenseko *Pulpeiro de Carvallino* saltokiaren irekiera.

larunbata


MEHER
GIZON, EMAKUME ETA HAURRENTZAKO JANTZIDENDA
Bañez doktorea, 1 • Tel.: 943 79 63 85

Bañez doktorea, 10 • Tel.: 943 79 28 21
AZPILIKUETA

OINETAKO KONPONKETAK
RAOS
Mota guztietako giltzen kopiak
Bañez Doktorea, 6 behea
Tel.: 943 79 74 87 • San Andres

autos
MURU
motorrak
Zure scooter-a erostean matrikulazioa doan
GILERA PIAGGIO PEUGEOT RIEJU YAMAHA HONDA
Araba etorbidea, Eskatu pabilioia • ARRASATE

BAI-BAI
• Moda •
• Opariak •
• Osagarriak •
Bañez doktorea, 15
Tel.: 943 79 06 37

FAGOR
ELEKTRATRESNAK
*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

# dres jaiak

larunbata

Apirilak

## 29

**10:00** Etxafiero jaurtiketa, diana.
**11:00 - 13:00** Arku tiraketa.
**11:00-19:00** Puzgarriak eta eskulan tailerrak gaztetxoentzat.
**12:30** Txaranga.
**18:00** Buruhandi eta kilikiak.
**23:00** Dantzaldia *Izotz* taldearekin.


Jose Antonio Izagirre
HARATEGIA
URDAITEGIA
Kurtzetxiki, 2
Tel.: 943 79 59 86

INMOBILIARIA EKOS
Araba Etorbidea, 4
Tel.: 943 79 19 88
Faxa: 943 77 15 76
emaila: ekos@ekos.org

Rita
FRUITADENDA
Errebuelta, 10 • Tel.: 677 81 23 82

San Andrés
herri eskola
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Ondo pasatu jaietan!!
Alfonso VIII, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 69 • Faxa: 943 79 00 44

IKASTAROAK ATZERRIAN *Uda honetan*






CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.
- Ekintza turistiko eta ludikoekin — haur, gazte eta helduentzako
- Eta CIMek beti eskaintzen dizun bermearekin

CIM HIZKUNTZAK-IDIOMAS
bai&by
Jai zoriontsuak!
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

Florida, 8 A
Tel.: 945 15 01 55
Vitoria - Gasteiz

Avda. Alava, 4
Tel.: 943 71 20 55
Arrasate - Mondragón

Zubieta, 26
Tel.: 943 43 31 02
Donostia - San Sebastián

Olakua, 14
Tel.: 943 71 60 00
Oñati

RUIZ
LURRINDEGIA
OPARIAK
Bañez doktorea, 4
Tel.: 943 79 19 94
Tel. partikularra: 943 77 05 74

LIZARRALDE
KIROLAK
Bizikleten salmenta eta konponketa
Oñati
Olakua, 16
Tel.: 943 78 29 86
Arrasate
Foruen plaza, 1-2
Tel.: 943 79 91 47

AKADEMIA
BASTIDA
LANBIDE HEZIKETARAKO IKASTETXE
Araba Etorbidea, 3 - 1
Arrasate
Tel.: 943 79 35 33 - 943 79 32 16
Faxa: 943 79 06 28
emaila: bastida@tsai.es

KURRUXKO
Okindegia
Urdaitegia
Gozotegia
Bakailaoa
Bañez doktorea, 12
Tel.: 943 79 22 57

# San Andres jaiak


IZASKUN
ARRAINDEGIA
Araba pasealekua, 3 Tel.: 943 79 19 86
Bañez Doktorea, 13 Tel.: 943 79 15 10



MODAK
Ritelu
- Gizon, emakume eta gazteentzako arropa
- Lentzeria
Foruen plaza, 3 • Tel.: 943 79 29 99


## Apirilak 30 igandea

10:00 Etxaflero jaurtiketa, diana.
12:00 Txaranga.
18:00 Buruhandi eta kilikiak.
23:00 Dantzaldia *Carisma* taldearekin.


IRU Zangitu
MARGOAK
ALFONBRAK
Araba Etorbidea, 3
Eskatu pabeloia
Tel. 943 79 11 71



Tximeleta
Gozokidenda
Bañez doktorea, 6
Tel.: 943 79 49 82


## Maiatzak 1 astelehena

10:00 Etxafleroak, diana.
11:30 Nagusientzako meza.
12:00 Txaranga.
12:30 Luntxa. Nagusientzako bazkaria *Corazon de Encina* elkartean.


BLANCA
TEXTIL HOGAR
Zure etxea barrutik jazten espezialistak
Maisu Guridi, 3
Tel.: 943 79 15 85



Aramaio
okindegia
Croissante eta opil egin berriak.
Jai zoriontsuak eta on egin!
Maisu Guridi, 3 Tel.: 943 79 06 46


## eta gauean... giro aparta!


MESÓN MANOLO
• Pintxo aukera ugari
• Eguneko menuak kartara
Bañez doktorea, 3
Tel.: 943 79 22 40



CORAZON DE ENCINA KULTUR ELKARTEA
Araba etorbidea, 3
TEL.: 943 79 11 75 • 79 11 83



Itxaso taberna
Araba etorbidea, 14
Tel.: 943 79 57 10
ARRASATE



CAFÉ
IAMAI
KONTZEZINO KALEA 14
943 71 29 95 - 20500 ARRASATE



Muruamendiaraz
GOZOTEGIA
Leintzibar, 4
Tel.: 943 79 23 19



LINDE
whiskeria
Garro Jenerala, 3 behea
Tel.: 943 79 14 49



LIZARRA
TABERNA
San Andres auzoa
Tel.: 943 79 72 35
ARRASATE



Urretxu
taberna
Maisu Guridi, 1
Tel.: 943 79 15 93
ARRASATE



BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## SAN VIATORREKOAK BISITAN



San Viator ikastolakoak izan genituen bisitan astelehenean. Txekiarrekin, errumaniarrekin eta ingelesekin film bat eta aldizkari bat egin behar dute, eta ideiak hartzen izan genituen gurean.

## SALDA BERO-BEROA

Bost egun egin zituzten gose greban Mondragon Unibertsitateko ikasleek, euskal presoen eskubideen alde. Ostiral eguerdian kale agerraldia egin zuten, eta gero salda hartu zuten Udaletxeko arkupetan. Ongi irabazitako salda, dudarik gabe!



## ZAIN, LUZAROAN



Monte tabernaren aurrealdea duzue. Atarian kristoren jende pila. Guztiek nahi zuten txartelen bat derbia ikusteko. Batzuk goizeko 3:00retatik zeuden ilaran. Normala ote da "futbolmania" hau?

## "LORE GAZTEAK" KATAIDEN



Zapatuan bazkaria izan zuten Lore Gazteak dantza taldeko dantzariek eta dantzari ohiek. 108 kide elkartu ziren guztira mahaiaren bueltan. Ez da modu txarra kontu zaharrak gogora ekartzeko!

TXIRRITA
Taberna
Sukalde ona
Giro hobea
Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

AGR DEKORAZIOA
Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...
GREMIOEN KOORDINAZIOA
Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

# SARI EHIZA OPAROA



Izugarrizko arrakasta izan zuen Leintze ehiza eta arrantza elkarteak egin zuen txapelketak. Hilaren 8an izan zen eta bailarako 26 lagunek hartu zuten parte, 15 arrasatekoak. Arrasatearren artean, Oruna aita-semeak izan ziren txapeldun. Hala ere, ezin izan zuten sari banaketara geratu eta elkarteako lehendakariak, Felix Gordejuelak, hartu zituen txapela eta trofeoa.

# MARRAZKI LEHIAKETA

Altamirako jaiak izan dira astebururuan, eta zapatu arratsaldean marrazki lehiaketan hartu zuten parte haur hauek. Nork jakin etorkizuneko Picasso ez ote den horien artean egongo?



# GARAGARTZA ETA GESALIBARKO ABESBATZA



Garagartzako eta Santa Agedako abesbatzako kideak dira argazkikoak, eta Errioxako Rodezno herriko elizan atera dute argazkia. Atzean duten erretaula XV. mendekoa da. Abesbatzako partaideak, ezkerretik eskuinera: Julio Orobengoa, Julio Heriz, Jose Luis Axpe, Javier Bengoa, Kepa Otxoa, Luziano Jauregi, Luis Mendarozketa eta Manuel Unamuno.

Behealdekoak: Luis Maria Eriz, Juan Luis Castillo zuzendaria, Jose Maria Ayastui, Dionisio Zabarte organujolea, Bitxori Zubizarreta, On Iñaki Galparsoro Garagartza eta Gesalibarko parrakoa eta Anton Garate.



# KASINO TXAPELDUN DOKEAN

Kasino (Ander Agirre eta Aitor Añibarro) taldeak irabazi zuen igandean doke txapelketa, Bidegain (Vanesa Acosta eta Andoni Gonzalez) taldea finalean kanporatu ondoren. Hirugarren Danok Bat (Mikel Izquierdo eta Jorge Dacosta) gelditu zen, eta laugarren Dorrepe (Mikel Dominguez eta Javier Carmona). Guapo daude argazkian irabazleak, ezta?

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62


Egunkaria
Euskararen Lege murriztailea
Bizkorrek ez zuen gutxiago merez
Zorionak Euskal Herria
hamar urte
Egunkaria

# Hi, nahi duk!



Baloirik ezean, dena da balekoa. Eta oinetakoa ere horretarako baliagarria izan daiteke. Etxerat eta Sas T taldeen arteko partidan, horixe pentsatu zuten, behintzat. Hi, baina, horrekin golek balio diatek?

## Emaitzak

**A taldea**

Giraldilla Con. 0 - Etxe Mobel 1
AT Lokala 10 - Kanpazar Har. 5
Betrayer 11 - Ume Zikinak 3
Irati STS 4 - You Know 3
Xhasss Ugarte 2 - Saukelu S. 7
Komando Alp. 0 - AC Surkos 8

**B taldea**

Makanudos 4 - Alai Gozokiak 8
Txeyenex 5 - Dribling 5
Serengeti 7 - Timoftol 10
Potroak 3 - Garaje Oscar 11
Branka Tab. 2 - Aldibi 2
Etxerat Tab. 12 - Sas T 10
KJ Basti 3 - Dribling 5
Makai 0 - Aurrera Bolie 4
Kamasutra 6 - AKTA 6

**FIANTZA BARIK**

Joan den astean esan genizuen Egoitz Apraizek ezin zuela bere taldearekin jokatu, baina berak muzin egin antolakuntzak esandakoari eta Saukelu Scream fiantza barik gelditu da.

Baina ez da hori izan lehen aldiaren amaieran hartu den erabaki bakarra. Ume Zikinak taldea ere kalera bota dute eta. Ez zuen zegokion partida epaitu eta nahiz eta sailkatzeko aukerarik ez zuen, zuzenean joan da kalera. Eta berarekin batera, bigarren aldian izango ez den taldea, Giraldilla Connection izango da. Ez zen zegokion partida jokatzera aurkeztu.

**BIGARREN ALDIA**

Maiatzaren 6an hasiko da aurtengo txapelketako bigarren aldia. Astelehenean egin zen zozketa Arrasate Telebistan eta honela gelditu dira multzoak:

**A TALDEA**

Timoftol SMD
IKP
AC Surkos
Garaje Oscar

**B TALDEA**

Dribling
Komando Alpargat
Etxerat Taberna
Kanpazar Harrobia

**D TALDEA**

Orlando Piratas
AT Lokala
Aldibi
Irati STS

**E TALDEA**

You Know
DA Iriztu
Branka Taberna
Kamasutra

ARRASATE KIROLAK
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

# Arrasate laugarren


Ramon Lopez de Erauskin.

Arrasate Kirolak Atletico taldea laugarren izan zen Gipuzkoako taldekako txapelketan. 4x100 errelebutako lasterketan, esaterako, zilarra irabazi zuten mondragoetarrek. Lorenzo Avilak, Unai Sarabiak, Remi Diosdadok eta Jon Igartuk osatu zuten laukotea. 4x400 lasterketan, ordea, brontzearekin konformatu behar izan zuten. David Blancok, Martin Davilak, Fernando Nogalesek eta Raul Canalesek osatu zuten taldea.

Bigarren izan ziren baita ere Unai Sarabia (200 metroko lasterketan), Jokin Diez de Lenana (altuera jauzian) eta Mikel Iturbe (disko jaurtiketan).

Hurrengoa Euskal Herriko taldekako txapelketa izango da. Iruñean jokatuko da maiatzaren 6an.

**INFANTILEN SARIAK**

Infantilek ere txapelketa izan zuten asteburuan. Gipuzkoako txapelketa Ordizian jokatu zen eta hantxe brontzezko domina irabazi zuen Ramon Lopez de Erauskinek. Bera disko jaurtiketan aritu zen eta kilo bateko diskoa 23,84 metroko luzerara jaurti zuen.

Unai Sarabia ere ondo aritu zen. 200 metroko lasterketan bigarren izan zen, 22"59ko denborarekin. Espainiako txapelketan aritzeko gutxieneko denbora 22"70 da; beraz, txapelketan egoteko txartela irabazi du Unaik.

# Nazioarteko futbol txapelketa

Mondrako futbol taldeek Aste Santuko oporrak izango dituzte. Hurrengo partidak maiatzean jokatuko dute, baina bitartean Atxabalpe ez da hutsik egongo.

Hamaseigarren aldiz, Real Sociedad taldeak gazte mailako Nazioarteko Futbol Txapelketa antolatu du. Eta aurten, iaz bezala, Atxabalpen ere jokatuko da partidarik.

Apirilaren 21ean, esaterako, arratsaldeko 17:00etan, Sevilla eta Manchester United taldeak arituko dira aurrez aurre.

Finala, berriz, Anoetan jokatuko da apirilaren 24an.

**BI MULTZO**

Zortzi futbol talde arituko dira, bi multzotan banatuta: Real Madril, Liverpool, Athletic eta Gipuzkoako konbinatua A multzoan, eta Sevilla, Manchester United, Osasuna eta Real Sociedad B multzoan.

## SASKIBALOIA
### Garaipena berriz

Kenci Arrasate saskibaloi taldeak irabazi egin zuen Transportes Lesaka taldearen aurka. Denboraldia amaitzeko bi partida baino ez dira gelditzen eta mondragoetarrek sailkapeneko goiko tokietan segitzen dute, lehenengo lauren artean, hain zuzen ere. Bigarren itzuliko partida guztiak irabazi dituzte honezkero, eta ligaskaren amaieran iruñearrekin berdinduta bukatuz gero, saskiratzeak begiratu beharko lirateke nor sailkatzen den erabakitzeko.

Asteburu honetan erronka gogorra dauka Kencik. Liderraren aurka jokatu behar du.

## FUTBOLA
### Etxean irabazi

Mondrako neskek 2 eta 1 irabazi zuten Ilintxaren aurka. Dagoeneko, Kopako bigarren aldirako sailkatu dira Estiren neskak.

Partidako lehen aldian sartu zituzten bi golak, eta bigarrenean partida eutsi ezinda ibili ziren arren, batez ere bigarren zatiaren hasieran, azkenean 2 eta 1 amaitu zen norgehiagoka.

Hurrengo partida Aste Santuaren ondoren izango du Estiren hamaikakoak.

Mondrako beste talde guztiek ere oporrak izango dituzte. Hurrengo jardunaldia maiatzaren 7an izango da.

## TXIRRINDULARITZA
### Bergarara

JMA taldeko bigarren urteko kadeteak Eibarren aritu ziren joan den asteburuan. 60 kilometroko ibilbidea izan zen, Eibartik Eskoriatzaraino. 76 txirrindularitik 55 helmugaratu ziren. Osintxura bidean Raul Blazquezek ihes egin zuen eta 4 kilometrotan bakarrik ibili zen. Helmugan, Ibai Iriondo Ciclos Beristain taldekoa izan zen lehenengoa. JMA taldeko sei txirrindulariak, Elortza, Juldain, Blazquez, Elustondo, Mera eta Martin 4 minutura iritsi ziren. Hurrengo lasterketa maiatzaren lehenean izango da Bergaran.

**ARRASATE KIROLAK**

**Aurreko asteko erantzuna:** Ternua, Lorpen eta Tuckland dira marka euskaldunak.

**Galdera:** Arrasate Kirolaken dauden mendiko kanpadendak zein markakoak dira?

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.

Erantzuna: ........................................

Izen-abizenak: ........................................

Helbidea: ........................................ Tel.: ....................

# Gorputza eta hizkuntza lantzeko bi ikastaro



Oihulari Klown taldeko kideak emango ditu eskolak.

Bi ikastaro erakargarri jarri ditu abian Udaleko Gazteria sailak. Aurki Liburuaren Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, guk geuk hobeto idazten ikasteko aukera izango dugu, *Idazketa literarioaren lehen pausoak* izeneko literatura lantegian. Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak emango ditu eskolak, maiatzaren 4tik hasita. Astelehen eta ostegunero izango da ikastaroa, 19:00etan, Monterronen.

Literaturak sentimenduen espresioa lantzeko aukera ematen badigu, gorputza hizkuntzak antzerki-klown ikastaroan izango du bere tartea. Hau zapatu goizero emango da, maiatzetik San Juanak arte. Oihulari Klown taldeko Ernesto Agirre izango da irakaslea. Gazteria Sailak berebiziko deia egiten die herritarrei ikastaro honetan parte har dezaten, oso originala eta dibertigarria izango delako. Bietara izena emateko, deitu 943 77 00 65era.




# Idazle onenentzako sariak

**XIII. Arrasate Literatura lehiaketetako sariek badute jabea. Joan den ostegunean, apirilaren 13an, izan zen sari banaketa udaletxeko pleno aretoan. Herriko kultura, hezkuntza eta komunikazioko erakundeek aukeratu zituzten irabazlea eta finalista. Ondokoak izan ziren, hurrenez hurren:**

**IPUINA**
**12 urte:** H. Eraña eta A. Arana.
**13 urte:** L. Kortabarria eta J. Zugasti.
**14 urte:** I. Osa eta I. Ullibarri-Arana.
**15-16 urte:** I. Agirre.
**17 urtetik aurrera:** J. Aiastui, eta finalistak, A. Fernandez de Jauregi eta E. Amondarain.

**POESIA**
**14 urtea arte:** A. Padilla eta L. Errasti irabazleak, eta I. Osa.
**15-16 urte:** E. Elkoro eta Z. Lasa.
**17 urtetik aurrera:** M. Agirre eta N. Makazaga.

**BERTSO-PAPERAK**
**14 urtera arte:** M. Mazmela eta I. Osa.
**15-16 urte:** J. Labayen eta J. Bolinaga.
**17 urtetik aurrera:** A. Lizarralde.

**KOMIKIA**
**14 urtea arte:** L. Ocon eta L.Feo izan ziren irabazleak; finalista, berriz, O. Rebanal.
**15-16 urte:** I. Galan eta X.Sanz.
**17 urtetik aurrera:** M. Arroiabe eta J. Gonzalez.

**EUSKALKIAREN GRABAZIOAK**
A. Aginagalde eta A. Zabalak osatutako taldea izan zen irabazlea.

**IRRATI ERREPORTAJEAK**
**17 urtetik behera:** M. Muñoz irabazle, eta D. Lage eta L. Balzategi finalistak.
**17 urtetik aurrera:** A. Altube izan zen irabazle; finalistak, berriz, M. Igartua eta A. Martin.

# Kultur errota, berriro abian

1998.an jarri zuten abian Kultur Errota Topaguneako 30 euskara eta kultura elkartek. Hainbat artisten elkarlanari esker egindako formato txikiko kultura zirkuitoa da Kultur Errota. Datorren maiatzaren 5ean, berriro indarrean jarriko dira. Eta Arrasaten izango da 22:00etan, Amaia antzokikan. Xabier Amuriza bertsolaria izango da artista. Ahozko kultura adierazpenek izango dute lehentasuna: musikak, antzerkiak, kontu-kontakizunak, olerkiak... Lazkao



Txikiri buruzko saioa eskainiko du Amurizak, bertso emanaldi, pasarte, kontakizun eta beste hainbat ezustekorekin.

ENRIQUE PEREZ (SAETA KANTARIA)

# "Bihotzetik irtetzen den zerbait dira saetak"

**Aurki dugu gurean Aste Santua. Andaluzian izaten dira ospakizunik ikusgarrienetarikoak, eta horietako elementu garrantzitsu bat saetak dira. Horietaz asko daki erdi kordobatar, erdi mondragoetar batek, Enrique Perezek. Ospatu berri den Euskadiko V. Saeta Txapelketan parte hartu du. Lehiaketaren eta saeten inguruan egin dugu berba berarekin.**



**—Zer deritzozu txapelketa honi?**

—Ez nuen lortu finalera sartzea, ni baino askoz jende hobea zegoelako. Baina oso pozik nago, nik espero nuena gertatu delako. Nire zaletasunarekin bakarrik joan nintzen lehiaketara, niretzako eta lagunentzako kantatzera. Estu eta larri ibili nintzen, alde handia baitago familian edo elkartean kantatu eta epaimahai baten aurrean kantatzearen artean.

**—Nondik datorkizu zaletasun hori?**

—Cordobako Montillan jaio nintzen, eta han bizi izan nintzen 15 urtera arte. Hala ere, oso sustraituta geratu zitzaidan hango Aste Santuko tradizioa, eta saeta kantaketak. Ordudanik ez ditut behin ere Andaluziako Aste Santuan entzun saetak, baina gogoan nituen letra batzuk. Lagunek esaten zidaten ez nuela ahots txarra, eta lagun artean kantatzen ihardun dut urte hauetan.

**—Zein da andaluziar saetaren jatorria?**

—Aste Santuko desfileetan kantatzen dira, Jesusen edo Ama Birjinaren irudiak pasatzen direnean. Eskaera, otoitz edo promesa batengatik kantatzen dira: adibidez, familiako baten bat gaixo dagoenean eta beraren alde eskatzea nahi duzunean. Eskerrak emateko ere abestu ohi da. Bi estilo daude: "por seguidillas", puruagoa, eta "por martinetes", zeinak letran jartzen duen indarra.

**—Saetak sentimendua ala teknika dira batipat?**

—Teknika ikasi egin behar da, baina bihotzetik irtetzen den zerbait dira saetak. Andaluziarrek halako "iratxoa" dugula esaten dute, eta hori saetan irtetzen da agerira. Batzuek hainbeste emozioz kantatzen dutenez, ahotsa urratzen zaie. Nire ustez, barruan duzuna kanporatzeko gogoa da saetaren oinarria.

**—Datorren urtean animatuko zara txapelketan lehiatzera?**

—Nik lehiatu baino, nahiago nuke ahots politak dituzten Al-Andaluseko hainbat gaztek eskuhartzea. Horretarako prestatzera animatuko ditut, ahots polita izatea ez baita nahikoa.

## "Andaluziarron iratxoa saetan irtetzen da agerira"

## Liburuaren eguna Arrasaten

Irakurleontzat egun berezia da apirilaren 23a. Cervantes eta Shakespeare, idazle apartak izateaz gain, apirilaren 23 batean hil ziren biak. Haien ondarea omentzeko, egun hori aitortu zuen Unescok Nazioarteko Liburuaren Eguna. Aurten, egun hori Aste Santuan tokatzen delako, aurreratu egin da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan pasa den astean ospatu dugu.

### HAINBAT IRITZI

Arrasaten liburuekin lan egiten dutenengana jo dugu ikerketa apur bat egiteko. Denetariko iritziak jaso ditugu. Mertxe Perez de Ziriza liburutegiko arduraduna da, eta bere ustez, liburuaren egunak ez du inongo eraginik arrasatearrongan: "Lehendik irakurtzen zuenak eutsi egiten dio, eta zalea ez zenari ez zaio zaletasun hori pizten". Iritzi berekoa da Asun Agiriano, beste arduraduna: "Egun hori liburudenden asmakizuna da, ez liburutegiona ez eta jendearena ere".

Liburudendetan kontrajarritako iritziak aurkitu ditugu. *Hire*ko Pilar Ubagok eta *Zabaleta*ko Edurne Alberdik ezetz, ez dela gehiago erosten diote. *Gorabehera*ko Raquel Antolinek, aldiz, horrelako igokadatxo bat sumatzen dela aitortzen du.

### IRAKURLEAK

Nork irakurtzen du gehien eta nork gutxien? Pilarrek argi eta garbi esaten du: "Gazteek irakurtzen dute gutxien. Aisialdia beste ekintza batzuekin ematen dute". Eta helduek? Edurneren esanetan, horiek dira irakurle onenak: "30-50 urte bitartekoek erosten dute gehien. Nobelak, historia liburuak eta bestsellerak saltzen dira hobetoen" .

Gurea informazioaren gizartea dela diote adituek, baina Gutenbergen ondareak ere hortxe segitzen du. Hori bai, irakurleen aldetik ahalegina egin behar da liburuak bizi iraungo badu, irakurtzea grina delako, baina baita disziplina ere.

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxea salgai Oñatin, herri erdian. 70 $m^2$. Tel.: 943 71 49 15, gauez deitu.

• Etxebizitza salgai. Toki egokia. 84 $m^2$. Berogailua, igogailua eta garajea. Tel.: 943 79 53 12.

### 2. Erosi

• Etxe bat erosiko nuke herri erdian, igogailuduna. Tel.: 943 79 81 25. 20:00etatik aurrera.

### 3. Errentan emateko

• Apartamentua alokagai Torreviejan (Alacant) herrian bertan (Playa del Cura). Tel.: 943 79 32 54.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat, Arrasaten. Tel.: 943 79 39 02

• Etxebizitza alokagai Torreviejan. Bi logela, jangela eta hondartzatik 100 metrora. Tel.: 943 77 03 85.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko genuke Aramaion. Tel.: 617 99 43 38. 20:00 - 22:00.

• 4 ikasle etxebizitza bila, eskola politeknikotik gertu. Tel.: 616 04 30 72. Jon. 606 36 07 45. Oier.

### 5. Etxeak osatzeko

• Mutila behar da etxebizitza osatzeko Makatzenan. Tel.: 943 77 12 42. 8:00-15:00.

• Logela bat alokagai, Ferixalekuan. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 943 79 32 28. Mikel.

• Bi gela alokagai Erguin kalean. Tel.: 639 58 93 66.

**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak

# 943 71 25 11

**ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)**

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko Arrasaten (Lehenbailehen) Tel.: 616 82 17 23. Garbiñe.

## GARAJEAK

### 9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel: 943 79 01 84. Edurne.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Mentun garajea salgai. Tel.: 943 22 17 31 (gauez).

• Usaetxen garaje itxia salgai. Tel.: 943 77 12 77.

### 14. Errentan emateko

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Gaixotasunagatik ezin dut atenditu. Tel.: 626 37 93 66.

## LANA

### 17. Eskaintza

• 16 urteko mutila, Mondragoeko tabernaren batean asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 943 77 01 83. Gauez deitu.

• Enpresa edo tailer batean lan egingo nuke. Tel.: 943 79 37 68. Idoia.

• Arrasaten gazte arduraduna eskaintzen da tabernan edo antzeko nonbaiten lan egiteko goizez edo gauez. Tel.: 943 77 14 32.

• Neska prest Arrasaten arratsaldez umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• 10 urteko esperientzia duen emakumea prest orduka etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo bestelako lanak egiteko. Kotxearekin eta euskalduna. Informearekin. Tel.: 677 71 93 31.

### 18. Eskaerak

• Emakumea behar dut andra heldua zaintzeko, orduka larunbat eta igandetan. Tel.: 943 79 09 93. Pilar.

• Sukaldaria behar da taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 61 64.

• Mutil bat behar da furgoneta gidatzeko, Aretxabaletako tailer batean. Ford Transit. Tel.: 943 79 83 04.

• Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da, autoarekin. Tel.: 943 77 01 73 edo 608 77 53 14.

• Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko neska edo emakumea behar da. Tel.: 943 79 96 52.

• Etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, aitari konpainia egiteko. Tel.: 943 79 60 28.

• Eskoriatzako ile apaindegi bat zurebila dabil. Estilista izateko frogak egingo ditugu. Bidali kurrikulumak maiatzaren 12a baino lehen. Intxautxueta 6, Behea. 20.520, Eskoriatza.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

• DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Matematikako eskolak ematen dira. Esperientziadun irakaslea. Tel.: 616 55 03 18.

HIES BERRIA
Tel.: 943 79 26 99

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

## 21. Eskaerak

• Alemanierazko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 20 15. Maite.

• Polakoa ikasi nahiko nuke. Tel.: 666 33 096. Sergio. Gauez deitu.

• Bi neskak ingelesezko eskola partikularrak jaso nahiko lukete. Tel.: 943 79 09 71, Nerea eta 943 79 09 86 Naiara.

• 1. batxilergoko ikasle batek ekonomia eskolak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 98 07.

# MOTORRA

## 23. Saldu

• Nissan Vanette Coah salgai. 76.200 Km. 200.000 pta. Tel.: 943 79 69 14.

• Opel Astra GSi 2:0 autoa salgai. 115 zaldi, zuria. 1993koa. Tel.: 943 77 09 23. Roberto.

• Playstation erabili gabea. Prezioa: 15.000. Tel.: 943 79 52 27.

• Peugeot 806, 7 plaza. 2.0 gasolina. Tel.: 607 15 30 70.

• Suzuki SK.50 ziklomotorea salgai. Oso egoera onean. 100.000 pta. Tel.: 616 15 63 73.

• Renault 11 salgai. SS-AB (75.000 pta) Tel: 943 71 54 59.

• Gas gas Trialeko motorra salgai. 250 cc. 92koa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Peugeot 309 salgai. Lau ate, SS-AF matrikula. 170.000 pta. Tel.: 670 42 07 07.

# DENETARIK

## 26. Saldu

• Akuariuma salgai. 100 litrokoa da eta ur filtroa eta termostatoa dauzka. Tel.: 943 79 88 30.

• Nikon FM 10 argazki kamera salgai. Egoera onean. Tel.: 600 69 70 15.

• Errepideko bizikleta salgai, 57ko neurrikoa, koadro berria eta 7.020 aluminiozkoa. "Shimano 600". Osagaiak ipinita. 125.000 pta. Tel.: 943 78 00 28.

• Karro denda Inesca (Viena modeloa) salgai. Ia berria. Tel.: 943 76 43 80.

• Antzinako pianoa salgai. Tel.: 943 79 47 17. Gauez.

• Cocker amerikarrak salgai. hogeita hamar txapeldun. Tel.: 666 54 77 15, 943 79 68 53, eguerdian.

• 99ko Wip It piragua salgai. Remo, bainu estalkia eta 4 globo. Tel.: 943 79 78 36. Unai

• 9-12 urte bitarteko haurrentzako bizikleta salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 71 86 (Jone, 19:00-22:00).

• Mugitu ezin diren pertsonak eramateko garabi txikia salgai. Osagai guztiak ditu eta prezio onean salduko genuke. Tel:. 943 79 60 25.

## 27. Erosi

• Diskoak eta LPak erosiko nituzke. Tel.: 943 79 76 90.

• Bigarren eskuko ordenadore portatila erosi nahi dut. Tel.: 943 79 77 85.

• Arrue markako panpinentzako kotxe garaia erosiko nuke. Tel.: 943 79 37 68.

• Billar bat erosiko nuke. Ez dadila oso garestia izan. Tel.: 943 77 17 58. Josu.

## 31. Galdu

• Puntuzko txaleko gris bat galdu dut Iturriotz kalean. Tel.: 649 88 79 22.

• Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonora.

• Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Artxabaletan. Tel.: 945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

• Martxoaren 10ean koltxoidendako algodoizko 2 funda galdu nituen Tximeleta gozokidenda parean. Tel.: 943 79 80 25. Arantza.

• Herriko parrokiaren arkupean Nokia markako esku telefonoa aurkitu nuen. Berreskuratzeko deitu 943 77 01 42 telefonora.

## 33. Bestelakoak

• Dieta pertsonalizatua Nutrikarekin. Tel.: 619 32 62 27.

• Botatzeko dituzun egurrezko ateak jasotzen ditugu. Tel.: 943 79 97 84.

• Zure sukaldeko mahaia, aulkia, armairuak edo gas sukaldea erretiratu behar badituzu, neuk hartuko nizuke. Dei egidazu 616 12 57 26 telefonora.

• Martxan dagoen garbitasun enpresa saltzen dut, furgoneta, makinaria eta guzti, oso modu onean, negozioaz arduratu ezin naizelako. Hileko irabazia 450.000 - 500.000 pta. Interesatuok deitu 629 40 47 82 telefonora.

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.. 943 77 08 02. Joxean.

## 32. Aurkitu

• Urrezko katea dominarekin, Iñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

# HARREMANAK

## 35. Kontaktuak

• Lurrin eta kosmetika enpresa multinazionalak saltzaileak behar ditu. Taldeko buruak eta komertzialak behar dira. Soldata altuak eta Estatu mailako hedapena. Bitxi eta Gold Field katalogoa zure esku jarriko dugu. Tel.: 670 27 04 96.

• Xabi naiz eta 36 urtetik beherako mutilekin harremanak izan nahi nituzke. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zbk. 20560 Oñati Gipuzkoa. Nire aldetik erabateko zuhurtasuna.

LASAGABASTER

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




Apirilaren 25ean, talde handi honek bere Lehen Jaunartzea egin zuen Mondragoen, On Jose Luis Iñarra parrokoaren gidaritzapean. Katekista lanetan, (ezkerrean) eta Ana Mari Azkarate (eskuman) ibili ziren. 1948. urtea zen; lekua, berriz, Santa Barbara parkera igotzeko zeuden eskilarak.

Goitik, ezkerretik, hasiko gara argazkikoen izenak ematen:

1-Leonor Berezibar (katekista), 2-Angelines Bermejo, 3-Angelita Elgoibar, 4-Isabel Mondragon, 5-"Osiña", 6-Mertxe Trojaola, 7-Mertxe Ruiz de Alegría, 8-On Jose Luis Iñarra Parrokoa, 9-Pilar Uranga, 10-Beitia, 11-Julita Ormazabal eta 12-Carmen Ojanguren, 13-ezezaguna, 14-Ana Mari Azkarate (katekista),

Bigarren ilaran honakoak daude: 15-Alberto Garai, 16-Okina, 17-Carmelo Letona, 18-Encarna Urzelay, 19-Pilar Martinez de Ubago, 20-Rosario Zeziaga, 21-Arantza Nafarrate, 22-Marisol Garai, 23-Conchita Garai, 24-Dolores Jauregi, 25-Marisol Agirre, 26-Arantza Balerdi, 27-Carmen Zabala, 28-Esther Bidaburu, 29-Laurita Benitez, 30-Arantza Barrutia, 31-Conchita, 32-Lourdes Mugika eta 33-Esther Aranburuzabala. 34-Ayastui, 35-ezezaguna, 36-Amozarrain, 37-Gorosabel, 38-Okina, 39-Zubizarreta, 40-ezezaguna, 41-Adolfo Arkauz, 42-Juan Jose Müller, 43-Urrutia, 44-ezezaguna, 45-Juan Jose Inda, 46-ezezaguna, 47-Ignacio Zubizarreta, 48-Galdos, 49-Berezibar, 50-Herrarte, 51-Fernando Etxebeste, 52-Alejandro Ezkurra, 53-Mario Ugarte, 54-Agirre, 55-Murgia, 56-Jesus Mari Ugarte, 57-Osinaga, 58-de la Fuente, 59-Carmelo Usobiaga, 60-ezezaguna, 61-Jose Luis Loiti, 62-Ayani, 64-Biain eta 65-Rafael Agirre.

***Argazkia eta berriemailea:*** *Mertxe Trojaola*

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

# Gremioen gida

## Aroztegia

**Armairuak, hormako armairuak, ateak, oholtzak, leihoak etab.**

AROZTEGIA LAGUN

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde,5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltsaritza

*Izcue Irurzun*

Igeltsaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

**Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66**

## Leihoak

**ARGI PLASTIK**

***PVC, aluminio termiko eta poliuretanozko leihoen lantegia.***

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Ate eta pertsianak

**JUBAR®**
ATEAK, S.L.

**Garajeetako ate eta pertsiana automatikoak**

Kataide poligonoa, 1
Tel.: 943 79 10 20 • Faxa.: 943 79 08 17

## Igeltsoak - Apaintzea

**Pako eskaiolak S.L.**

Markulete, 14
Tel.: 943 77 08 21

## Margoak

**APAIN**
**MARGO ETA APAINKETA**

**Matiena, 3-1**
**Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17**

**JOVI**

**10.000 KOLORETAKO MENUA**
Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

## Elektrizitatea

**ARANZABAL**
**KOOP. E.**
Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak
Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

***ARRASATE***
***Elektrizitatea***
Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

## Iturgintza

**A. Pascual**

Bañez Doktorea, 8
Tel.: 943 79 65 29
Mug.: 666 59 58 05

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

**AURI**
Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88
**Iturgintza • Bainuak**
**Gasa • Berogailuak**

**EGIA** iturgintza
Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Pertsianak

PERSIANAS CARPER
**Mota guztietako pertsianen salmenta, muntaketa eta konponketa**
Eskuzko pertsiana eta elektrikoak
Anboto2. 1esk. **Tel.: 943 79 67 43**
**Mug.: 630 27 46 09**

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

## Tapizeriak

***Konrado***

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...
**Eskatu aurrekontua.**
Nafarroa etorbidea, 23 MI11
Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

## Giltzak




• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza zentroa, 1**
**Tel./Fax: 943 79 76 03**

*Gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora*

# Orain TDdi berria!

## Udaberriko eskaintza berria!




**Fiesta 1.3.i (3 ate) 1.224.000 pta.tik hasita.**
(Plan Kanpaina eta Plan Prever barne)

**MUGARRI**

Ford

DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54